



Jon Arretxe, aste honetan Donostian. ■ LUSA

«Nobela beltza, jeneralean, progresista da. Kontzientziak pixka bat astintzea da kontua»

Jon Arretxe Idazlea

Toure protagonistaren inguruan saga bat egiten ari da. Lau liburu plazaratu ditu eta martxan da bosgarrena

■ FELIX IBARGUTXI

DONOSTIA. Mahamoud Toure protagonista duen laugarren eleberria plazaratu du Jon Arretxe (Basauri, 1963). Aurrekoak bezala -'19 kamera', '612 euro', 'Hutsaren itzalak'-oraingo 'Estolda jolasak' hau nobela beltza da, baina badu bidaia-nobelatik ere, izan ere istorioaren parte bat Afrikan gertatzen da. -Toure pertsonaiaren lehenengo liburu egin zenuenean ere bazenuen gehiago egiteko asmoa, ezta? -Lehenengo aletik erabaki nuen saga bat egitea, bai. Aurreko istorioetan ezinezkoa izan zen, zeren gehienak hil egiten ziren. Irakurle goaldetik Tourek eduki duen harrerak gehia-

go animatu nau, jakina.

-Hitz egin dezagun harreraz.

-Nik irakurleekiko harreman oso zuzena edukitzen dut azoketan, sinaketetan-eta. Durangon badaramatzat hogeit urte. Hasieran ez nuen piperrik sinatzen, behi sakratuen aldamean egoten nintzen, lotsatuta. Oso feed-back interesgarriak dira, zeren nik banan-banan galdetzen diet zergatik erosi duten liburua. Batzuek esaten didate aurreneko aldia dela, ez nindutela ezagutzen, eta horrek kristoren ilusioa egiten dit.

-Irakurleetan, gizonak ala emakumeak dira gehiengoak?

-Emakumeak gehiago dira, bestela ere irakurle gehienak emakume direlako. Badakigu zer gertatzen den hemen eta inguruan: emakumeek askoz gehiago irakurtzen dute.

-Nik, adibidez, gusturago irakurri dizkizut Bilbon gertatutako liburuak. Honetan, Toure Afrikara bidali duzu eta ondo dago, baina nik Bilboko San Frantzisko nahiago.

-Kezka handia neukan alde horretatik. Azken batean ia-ia bidaia-literatura da berriro. Konbentzita nengo aldaketaren bat egin behar zela. Lehenengo bi liburuak Bilbon ziren erabat. Hirugarrena, Bilbo, Irun, Hendaiá, Iparraldean gertatzen da. Laugarrenean zerbaite ezberdina eskaini nahi nuen. Baten batek esan dit, bai, Afrikara joate hori ez zaiola gehiago gustatu. Nik badakit batzuk ez daukela batere hunkituta bidaia-literaturarekin. Literatura beltzaren irakurlea oso urbanoa da jeneralean, eta hiriak gustatzen zaizkio. Inoiz ez duzu jendea gutzia pozik utziko.

-Ez dakien bati, esaiotzu nolako den Toure. Superviviente bat, ezta? -Horixe da hitza: superviviente. Nola esan hori euskaraz? 'Biziraule' ezin esan. Erlatibozko esaldi bat behar da hor. Konplikatu egiten da asuntoa. Afrikaren adibide garbia da Toure. Gure artean bizi diren afrikarrak eta Afrikan bizi direnak horrela dabilta, nola edo hala bizirik ateratzen behar dira. Haien kezka da egunero jan ahal izatea eta familiari ere jaten ematea. Toure honelakoa da eta nik egin dut

pixka bat desdramatizatu, zeren bestela oso liburu tristeak izango ziren. Lehenengo biak ez dira tristeak. Zergatik? Tourek, bizirik irauteko, gigo-larena egin behar badu, hala egingo du. Eta egin behar badu zezensuzkoarena, hala egiten du. Eta sortu bazeu aukera opera batean estrarena egiteko 20 euroren truke, ba aurrera! Hogeit euro horiek bidaltzen baditu Afrikara, emazteak jaten emango die haurrei ez dakit zenbat egunetan. Guri hain ridikulu iruditzen zaigun horrek garrantzi handia dauka. Txarto ohituta gaude. Toure ez da berdina lehenengo nobelan eta azkenekoan, aldatzen ari zaio izaera.

-Nola?

-Lehenengo bietan, alukiari eginen dizkiote, larri dabil, baina hirugarrean gauza oso larriak gertatzen zaizkio, eta hor gainez eginda dago gizajoa, mafia nigeriarrek kalte egiten baitio alabari. Eta erabat egiten du gainez Poliziak sator iza-

«Kanpoan nabilenean, jendea harritzen da nire poliziak ez direlako onak, txintxoak»

«Bilboko San Frantziskon prostituta nigeriarrek bizi dira okerren. Eta oso mesfidatiak dira»

«Unibertsitateko lanpostua utzi nuen idaztetik bizitzeko. Ondo ateratzen da apustua»

teko gonbita egiten dionean.

-Laugarren liburua honetan, kaka artean bizitzen ipintzen duzu. Baina ikasi egiten du, eta pentsatzen dut ondorengo bosgarren horretan ere kaka franko izango duzula inguruan.

-Bai, superviviente hutsa izaten jarraituko du, baina kabroioa, gaiztoa.

-Nolako da zure idazketa prozesua?

-Boladaka idazten dut, eta bolada horien barruan etengabe. Pasa den astean hortxe egoitu naiz, Bilboko San Frantziskon, idazten. Lagun batzuek badituzte, pisua uzten didate eta 24 orduak horretarako izaten dira, nahiz eta kaletik ere ibiltzen naizen, lagunekin, zeren hango lagunak normalean elkarteetakoak dira eta kristoren informazioa izaten dute, etorkinekin lan egiten dutenez, eta prostitutekin.

-Orain San Frantziskon zein dira okerren bizi direnak? Afrika beltzekoak?

-Okerrak, prostituta nigeriarrek. Duda barik. Hor etnia pila dago, hizkuntza pila bat, baina gero guretzat denak berdina dira. Nigeriar horiek, askotan adinez txikiak dira, nahiz ezetz esan. Izorratuta iritsi dira, ikaragari sufrituta bidaian.

-Seguru asko bortzaketa jasango zuten bidaian zehar.

-Bai, askotan gertatzen da hori. Normalean bi urte pasatzen diruzte hona iritsi arte. Burutik erdi-jota ailegaten dira eta mesfidatiak dira izugarri. Badago elkarte bat, Askabide, jende horri laguntzen diona, eta lati-



ESTOLDA JOLASAK
JON ARRETXE
Argitalerria: Erein.
Prezioa: 18 euro.

«Opera-kantari nabil Iruñean. Aurkikuntza itzel bat izan da»

FF. I.

–Bidaia izan zara beti. Azkenaldian ere bai?

–Bai, pasa den urtean Etiopian izan naiz. Baina ez dira lehengo estilo-ko bidaiak. Lehen, bi-hiru hilabete-ko bidaiak egiten nituen, bakarrik eta bizikletan, presarik gabe. Azken urteotan, idazteko asmoarekin joan izan naiz kanpora, ordenagailua hartuta. Istanbulen, Lisboan, Tangerangen izan naiz idazten. Baina, niretzat, Bilboko Palankara joatea ere bidaia da.

–Non duzu bizitokia?

–Nafarroan, Arbizun. Izatez Basaurikoa naiz, gero Gasteizen bizi izan nintzen eta orain Arbizun badaramatzat hamabi urte. Baina esan dizudana, azken urteotan Bilboko Afrika txiki horretara joaten naiz idazterara tarteka.

–Bizimodu librea daukazu, kanpotik begiratura behintzat.

–Bai, hala da. Eduki nuen lanpostu finkoa unibertsitatean eta utzi egin nuen horrela ibiltzeko, idazterik bizitzeko. Heziketa Fisikoko fakultatean ari nintzen irakasle, Gasteizen, baina hori baino lehenago euskara-irakasle jardun nintzen Deustuko unibertsitatean, hamar urtean, eta hura utzi nuen bidaiatzeko. IVEFen hasi eta hiru urte egin

eta gero utzi egin nuen. Ondo atara zitzaidan apustua, zeren badaramatzat hamabost urte horrela bizitzen: bidaia eta idazten. Jendeak, normalean, segurtasuna eta soldata bat hilero nahi izaten du, nik hori ihes egin diot beti, eta kristoren disgustua eman nien gurasoei. Gurasoek gerra ostean benetako gosea pasatu zuten eta niretzat lanpostu finko bat nahi zuten.

–Abestu ere egiten duzu.

–Bilbon hasi nintzen opera kantatzen, batez ere Gasteizen bizi nintzenean, zeren handik ez zegoen oso urrun. Baina gero Arbizun jarri nintzenean nagieria ematen zidan Bilboraino joateak eta enteratu nintzen Iruñean bazegoela beste operakor bat eta hor sartu nintzen. Gainera, hor aukera neukan bakarlaripaperak egiteko. Solista ibiltzea, hori beste aurkikuntza itzel bat da. Antzokia beteta eta ni han, mozturrotua eta kantatzen. Kontua ez da zaila, da txipa aldatzea: orain naiz marinela moztortzia eta aurrera!

–Zein da koru hori?

–AGAO du izena. Asociación Gayarre de Amigos de la ópera. Ahots aldetik baxua naiz, eta hri abantaila da, zeren normalean koruetan eta operetan ez da baxu gehiegi egoten.

noekin normalean erraz hasten dira haremanetan, baina Nigeriakoeekin asko kostatzen zaie; hainbeste ostia jaso dute, ez dira fidatzen. Nigeriar horiek dira prostituzio merkeena egiten dutenak: hamabost euroan egiten dituzte gauzak.

–Agertuko al da hori hurrengo liburuan?

–Ez dut fanletario izan nahi. Hirugarrengan auzaltzen zen, gordin-gordin, nolakoa den jende honen bizimodua. Laugarrean ere agertzen da, baina zeharka. Hurrengoan ez ditut prostitutak aipatuko, ez.

–Nolatan aukeratu zenuen Burkina Faso Toureren aberri moduan?

–Alde batetik, ezagutzen dudalako. Burkina Fasokoa da Touré, eta gainera Gorom Gorom herrikoa. Ukitu baziloi bat maten dio. Ezagutzen dut herri hori, egona naiz. Basamortuko atean dago eta tuaregak dira nagusi. Hortxe egiten da Saheleko azoka handiena.

–Nola esaten zitzaion lehen Burkina Fasori?

–Alto Volta. Berdin-berdin har neza-keen Mali, edo Senegal, baina horiek normalagoak dira jendearentzat. Nahi nuen original izatea alde guztietatik.

–Bilboko San Frantziskoko kamera kontrolatzailea berreskuratu duzu laugarren nobela honetan.

–Hori ere beste pertsonaia bat da. Eta bosgarrean ere jarraituko du.

–Kamera hori zaintzen duen gizonezkoen metafora da, gizon zurriaren begia eta ikuspegia, azken batean.

–Eta kamera gobernatzen duen gizon horren itziza gizarteko itziza nagusia ere bada, zoritxarez. Jende ezagunaren aurrean «magrebtarrak

esaten dugu, eta gero kuadrillan «los putos moros». Eta politikari batzuek xaxatu egin dute, gainera.

–Izan zinen Elizondoko Aste Beltzean? Han, Jon Alonsok bereizi egin zituen literatura beltza kontsebadorea eta bestelakoa. Zurea progresistatzen har dezakegu, ala?

–Nobela beltza, jeneralean, oso soziala, progresista, ezkerrekoa da. Nik horrela ikusten dut: ez badauka karga sozialik, ez dut uste beltza izango denik. Askotan, harrizten da jendea, batez ere hor kanpoan nabiltzean, nire liburuetako poliziak ez direlako onak, txintxoak. Lorenzo Silvaren liburuetan, adibidez, guardia zibil txintxoak. Nik uste dut kontua dela kontzientziak pixka bat astintzea.

–Bilboko San Frantziskoin inoiz sentitu duzu arriskurik?

–Ez. Niri sekula ez didate ezer egin. Kameraz jostia dago auzoa. Bilboko toki segurua da. Batzuek, erdi-serio erdi-brometan esaten dizute horko lapurrek Bilboko beste toki batzuetara joaten direla lapurretara egitera, eta gero San Frantziskon saltzen dituztela harrapatutako gauzak. Jende asko dago burua guztiz galduta, batzuek arrisku-sentsazioa. Sartzen zara eta zer ikusten duzu? Beltz pila batzuk. Hizketan ari dira kalean, bezon etxeak oso gaizki daudelako. Afrikan ere gizonetokolak kalean egoten dira, lagunartean hizketan.



Mendizabal recibe la insignia de manos de Etxebarria. Atrás, Leizaola fotografía la escena. :: usoz

La sociedad Aranzadi agradece a la Bascongada porque nació gracias a ella

Paco Etxebarria impuso ayer la medalla de oro a la RSBAP. Es la primera vez que la insignia se da a alguien ajeno a Aranzadi

FF. I.

SAN SEBASTIÁN. La Sociedad de Ciencias Aranzadi entregó ayer a la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País (RSBAP) la insignia de oro, como gesto de gratitud porque fue gracias a esta institución que Aranzadi pudo nacer de forma legal, allá por 1947, bajo un régimen franquista que vigilaba y prohibía todo aquello que tuviera perfil vasquista. Es la primera vez que se impone la insignia a alguien que no es miembro de la propia Aranzadi.

El reconocimiento se materializó ayer en la insignia impuesta por Paco Etxebarria, presidente de Aranzadi, a Juan Bautista Mendizabal, presidente de la RSBAP.

La RSBAP era entonces una ins-

titución languideciente, por la falta de recursos económicos y porque buena parte de las élites culturales habían sido represaliadas. Pero se mantuvo en pie y de hecho fue no solamente el germen de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, sino también de la Sociedad Fotográfica de San Sebastián, de la Academia Vasca de Derecho y de la Cofradía Vasca de Gastronomía.

Aranzadi fue fundada por Reyes Corcóstegui –entonces alcalde de Oñati–, Miguel Cristóbal –donostiarra y miembro del club de montaña Fortuna– y el empresario andoaindarra Manuel Laborde –que entonces regentaba la empresa Vidia, de carburos de tungsteno–. Corcóstegui ocupó la plaza de una persona que había sido vetada por las autoridades franquistas.

Hace pocos años, el donostiarra Miguel Cristóbal recordaba para este periódico una anécdota que refleja aquella época franquista: «Unos días después de que entregáramos en el Gobierno Civil la solicitud para cons-

tituir la sociedad Aranzadi, me llama el secretario del gobernador y me dice: 'El señor gobernador vería con agrado que en esa solicitud fuera sustituido el nombre de Mariano López Sellés por algún otro'».

Ocurría que Mariano López Sellés –industrial zapatero de Pamplona y gran aficionado al montañismo– antes del 36 había sido posible simpatizante de Izquierda Republicana, pero sin pasar nunca a la acción. Por encargo del Gobernador, recibió la visita de un comisario de policía, quien le preguntó: «Usted, ¿a qué partido político pertenece?». Mariano, que era un hombre de humor muy fino, le contestó mirándole fijamente a los ojos: «¿Pero hay algún partido político?».

El comisario dio parte de esa ironía en su informe, y Mariano cayó en desgracia. Los impulsores de la sociedad científica se lanzaron entonces a la búsqueda de un hombre de repuesto, y jugaron una baza segura, la de Reyes Corcóstegui. Era el alcalde de Oñati, hombre del régimen por un lado, y además persona muy conocida en la provincia.

«Nosotros, simplemente, queríamos hacer algo por el país. Había tal necesidad que, en cuanto se constituyó la asociación, se afilió un montón de gente», comentó Cristóbal.

El etnógrafo Fermín Leizaola, presente en el acto de ayer, es quizá el miembro de Aranzadi en activo más veterano. Entró en la sociedad en 1958, a los 15 años. «Entonces se llamaba Grupo de Ciencias Naturales Aranzadi, y aparecíamos como filial de la RSVAP –sí, entonces era con V–. Pasamos a llamarnos Sociedad de Ciencias en 1971», comentó ayer.

Fermín Leizaola hace memoria de aquellos comienzos

Fermín Leizaola entró en Aranzadi en 1958, y en la Bascongada en 1961. Recuerda que en la Bascongada trabajaban gentes como Álvaro del Valle Lersundi, Joaquín Yrizar, Juan Ignacio Uria, José M^a Aycart, Juan Antonio Garmendia Elosegi y Luis

Peña Basurto. El etnógrafo donostiarra tuvo conocimiento de la existencia de Aranzadi gracias a su profesor de Ciencias Naturales, el sacerdote Tomás de Atauri. «Nos entregó un prospecto que hablaba de Aranzadi y mencionaba secciones como las de minerología y espeleología. Enseñada pensé que me tenía que hacer socio». Y a partir de entonces Fermín se volcó en la espeleología. La etnografía vendría después.